

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pedro Arrizabalaga Iriondo Zozua
Eibar, Gipuzkoa
(1906-2007)

Aurkibidea



Biografia



Estazio Kalean jaioa. Izen handiko eskopetagina. Artamendi eta Zulaika-rekin ikasi zuen marrazten. 14 urterekin hasi zen lanbidea ikasten, Albisteginean. Ugartetxearen tailerrean ere lan egin zuen baina denbora gutxira bere izena daraman eskopeta tailerra ipini zuen: Pedro Arrizabalaga. Gaztetan, dantza eta kantuan egitea asko gustatzen zitzaion, baita gitarra jotzea ere. Oraindik trikitia oso gustoko du. Gerra garaian familia osoak Axpe-Arrazolako baserri batera alde egin zuen, eibartik ihes eginda. Ehiztari amorratua izandakoa.

Zintak

AB-019

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** ...eta kitto!, Euskara elkarte - Laspiur, Kontxa - Muruamendiaraz, Amaia - Ugarteburu, Mireia
- **Data:** 1989-11-27
- **Iraupena:** 35 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

AB-051

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Izagirre, Enrike
- **Data:** 1992-10-09
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** CD

AB-164

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 1999-11-24
- **Iraupena:** 82 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Sarasua Aranberri, Asier

AB-617

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sangroniz, Mikel
- **Data:** 2000-01-04
- **Iraupena:** -

- **Euskarria:** Audio Analog

AB-618

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sangroniz, Mikel
- **Data:** 2000-01-04
- **Iraupena:** -
- **Euskarria:** Audio Analog

Pasarteak

1. Hamalau urterekin lanera

- **Erref:** AB-019/001
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

14 urtekin hasi zen aprendiz bezala lantegi txiki batean. Sarasketa zen herriko ganorazko eskopeta lantegia. Bere izena daraman lantegia zabaldu zuen. Eibarren langile espezialista asko egon da beti.

2. Eskopeta lantegiak Eibarren

- **Erref:** AB-019/003
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:02:58. **Bukatu:** 00:05:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Ofizioa ikasi zuenetik ez du inoiz lan faltarik izan. Artamendi eta Zulaikarekin ikasi zuen marrazten eta Albistegiren lantegian egin zuen lan soldaduskara joan zen arte. Beltxitarrak. Eibarren, ugazabak eta langileak lagunak ziren.

3. Untzagako dantzaldian ligatzen zen

- **Erref:** AB-019/004
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:05:14. **Bukatu:** 00:06:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Untzagako kiosko zaharrean musika egoten zen eta neska-laguna topatzeko

leku aproposa zen. Trikitia asko gustatzen zaio eta dantzazale amorratua izan da.

4. "Emete Kojua"-rekin kantuan

- **Erref:** AB-019/005
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:06:15. **Bukatu:** 00:07:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Kantuan "Emete kojuakin" ikasi zuen. Gitarra jotzen ere ikasi zuten. Garai batean asko kantatzen zen. Lasarte eta Pello Errota bertsolarien kantak abesten zituzten.

5. Lagun artean bertsotan I

- **Erref:** AB-019/006
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:07:26. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Elgoibarko jaietan bertako benta batera joaten ziren, txikiteoa egin eta bentan afaltzen zuten. Orduko istorio bat kontatzen du: 20 bat lagun ziren, kantuan nahiko onak. Bertsotan ere egin zuen baten batek.

6. Txirrita eta Pello Errotaren bertsoak

- **Erref:** AB-019/008
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:12:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Txirrita eta Pello Errotaren arteko anekdota bat kontatzen du eta elkarri botatako bertsoak abesten ditu.

7. Lagun artean bertsotan II

- **Erref:** AB-019/009
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:12:40. **Bukatu:** 00:14:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

"Zozua" deitzen diote Pedrori. Bere eta "Emete Kojua"-n arteko bertsoak.

8. Emaztea nola ezagutu zuen

- **Erref:** AB-019/011
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:14:47. **Bukatu:** 00:18:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Emaztea kasualitatez nola ezagutu zuen. Neskame bezala zegoen Estaziño kalean. Julita Solerak aurkeztu zituen Untzagako dantzaldi batean.

9. Gerra garaian Axpe-Arrazolara; ehiza

- **Erref:** AB-019/013
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:19:08. **Bukatu:** 00:20:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra garaian frontera joan behar zuenez, Axpe-Arrazolako baserri batera ihes egin zuten eta ehizan ibiltzen zen asko. Ehiztari amorratua izan da, eibartar askoren bezala. Nondik ibiltzen zen: Trabakua, Arno, Oiz..

10. Gitarra ikasten "Crispulonian"

- **Erref:** AB-019/016
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:27:54. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Gitarra jotzeko afizioa handia zegoen Eibarren. Gitarra "Crispulonian" ikasi zuen eta handik aurrera, bere kabuz.

11. 1934an Errebalen zeuden denda eta tabernak

- **Erref:** AB-019/018
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:29:13. **Bukatu:** 00:30:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublikak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

<p>1934ko iraultza hasi zenean, Trinkete taberna dagoen lekuan bizi zen. Gertuko taberna eta dendak aipatzen ditu: Café Europeo, Trinkete, La Ondarresa oinetako-denda… Iraultzan hildakoak eta zaurituak egon ziren.</p>

12. Uztapideren bertsoak

- **Erref:** AB-051/015
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:31:00

Gaia(k):

- [Aisia](#) » [Kultura](#) » [Bertsolaritza](#)

Laburpena:

Uztapidek Eibarren abestutako bertso bat gogoratzen dio Enrikek “Zozuari”.
Pedrok Uztapideren beste bertso bat gogora ekartzen du.

13. Mezatara joateko ohitura gaztetatik

- **Erref:** AB-164/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:03:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

<p>93 urte ditu eta dena asko aldatu dela uste du. Lehenago Eibarren jende asko joaten zen mezatarara.</p>

14. Errebal kalea nolakoa zen; dena aldatuta dago

- **Erref:** AB-164/003
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Estazio kalean jaiotakoa; gerora Errebal kalera joan ziren bizi izatera. Gerra garaian suntsituta geratu zen. Nolakoa zen kalea: mojen komentua; "Kontadorekua", e.a. Ogibidea non ikasi zuen. Dena aldatuta, ezagutu ere ezin egin.

15. Baskulagintzan non ikasi zuen

- **Erref:** AB-164/004

- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Zein tailarretan ikasi zuen baskulagintzan. Urte pare bat egin zituen bertan soldadutzara joan arte.

16. 20 urterekin Melillako gerrara joatea egokitu zitzaion

- **Erref:** AB-164/005
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

<p>Melillako gerrara joatea egokitu zitzaion 20 urterekin (1927 inguruan). Bera libratu egin zen; dirua ordaindu eta Donostiara bidali zuten. Loiolan zoragarri egon zen. Armategira destinatuta egon zen, armagina zen eta.</p>

Transkripzioa

Orduan tokau zuan, zerian, Melillan ta hor Afrikan gerria egon zuan ta hamendik eruanda mordua hil be ein zittuen hamen. Gure gurasuak billurtuta, ta gurien moduan beste askok be bai. Ta ipiñi juen, ba, nahi dabenak pagau ta, bederatzi hillebete edo zuan eitten genduan bertan, geure kontura zera, lo ta jan ta horrek geure kontura, kuarteletik fuera, baiña kuartelian goixian bertako kuartelekuen moduan, lehenengo zererako, vamos, listia pasatzen [erenian] soldaureri, ba, bederatzirak edo dana dala, " ra!" ta hantxe bestiekin. Gero, jatera be geure etxera juaten giñuan. Loiolan, "en Loiola". Bai. Ondo bota najuan nik. Bai ba, jan ta eran ein ta... gure serbiziua, ostian, serbiziua ezebe ez dok ha eittia. Ta geiñera han be, armerixako ofiziua zelan [gekaun] guk deklarauta eibartarrok... “ ¿Y qué oficio tiene usted?” ta, “Armero, ajustador.” Ta, joño! Honek halako serbiziua eitten jok ta han be armerixan destinau niñuen. Ta geuzak arreglau ta geuzak eitten be bai. Ta suzedidu jatazen geuzak, armeruak zittuan harek, baiña armeruak fusillanak eta horrek amatralladoranak eta geuzak, jakingo jittuezen geuzak ze modutan maestro armeruak, e! Tenientia ta kapitana, ez jakixat ze graduak ekezen eurak eta! Harekin, ta... Harek igarri esten neri liman ta geuzetan, “hau ofiziala dok”, igarri esten. Taillarra be bajeken zerian, Donostian, eurak sotano baten, taillarra, trokelajeko taillarra. Ta baten haraxe eruan niñuen, ajustatzeko gauza batzuetan ta limia ta aprobatzera. Ikusi niñuen ta, nik berari, eskopeta bat arreglatzen jiharduan, eskopeta bat ajustatzeko arreglatzen, ta totaleko aldrebes jiharduan, ta barre ein najetsan diharduala. Ta “¿Te ríes? —esan están—, ¿Te ríes? ¿Y por qué te ríes?”, “Porque andas mal, porque estás trabajando mal ahí para ajustar eso...”, “A ver, a ver, a ver tú... coge tú...” Hartu najetsan ta “di-da!” Bolio baten ipini najetsan zirixa eta geuzak eta “grak” eta ajustau najetsan ta: “Ahí tiene”. “¡Ay! ¡Por dónde andamos! —eitten estan berak— ¡Por dónde andamos!” Bai ba, harek ez zittuan...

17. Soldadutzako kontuak; armaginei errespetua

- **Erref:** AB-164/006
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:13:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

<p>Soldadutzako kontuak, armagintzarekin lotutakoak. Melillako gerra. Euskal herriko jende asko hil zuten bertan.</p>

Transkripzioa

- Orduan zuek, Eibartik jua ziñazienak, tratua hobia?

- Bai, bai. Guk arma asuntuan ikututakuan... Nahi izaten jua gu ridikulu lagatzia be, hango tenientiak eta, eurak zekixenak fusillan izenak eta. Esan gura dot, fusillan... dakazen... desarmau, ezta, fusil guztia ta harek dakazen piezen izenak eta. Gitxik jakitzen jittuen. Han inguruetakuak iñok be ez. Ta baten neri: "¿Y usted de dónde es?" ta..., teniente bat zuan, ta... "Yo de Eibar", "¿Armero?", "Sí, armero", "A ver, a ver, ¡Vamos a ver!". Hauxe mahaixau lakoxe edo txikitxuaua izango zuan, fusilla dana pieza guztiak desmontautu, dana! "A ver, a ver, a ver si me escoge usted ahí el percutor del fusil", "Ahí tiene usted", "A ver el disparador", "Ahí va", "A ver el cerrojo... o el seguro o...", berari okurritzen jakozen gauzak, ezta? "Da!". Hamar bat gauza-edo esandako moduan danak etaratzen najetsazen: "Da! Da!". Dana nahi [zeban harek gizonarek eta!]. Ta "Umm... Usted, de Eibar, ¿eh?", "Sí", "Y entiende de armería... Sí, ya se nota ya, usted ya se nota. A algunos no pero a usted se le nota" esan estan. "Bueno, bueno... ¡Retírese!" Ta holaxen. Leku batzuetan exitua eukitzen genduan, zekiulako arma barri ta horretan horixe besterik ez jaok, fusila ta amatralladora ta tirua ta alkar hiltzia besterikan, ta horixe dok zera. Ta han be ondo urten genduan, ondo. Gero, berriz, esan dotena, batzuk hiltzera, Melillara gerrara, ta gu aittak-eta hortxe salbau giñuezen. Jan ta eran ondo, tabernan, ta lo ta dana, ta erregiak moduan bizi. Ondo [joten] dou guk geure kintako zeroi, denporiori.

- Orduan, ordaindu ezker libre ta bestela Melillara?

- Bai, bai, Melillara. Orduan danak ez zittuan juango Melillara, baiña honenbestetik honenbestera edo, sortora edo ez jakixat zelan eitten eben. Behintzat hara eruaten jittuen ta mordua hil be ein zittuan. Gerrara han, han ez jeuan berriketarik! Han egon zuan epoka bat gerria egon zana. Bertakuak sublebau ta jo ta di-da! ta...

- Eibarren ez zan egon manifestaziñorik-edo ez zan egon horren kontra? Jentia ez zan kejatzen?

- Orduan horren kontra ez euan halako organizaziñorik. Bai, jentia keja bai hara juatia, baiña... Eurak baekixen hori, hangua, ta harek nahi jua handik bialtzia gu, españolena ez zuan izan be ta errezoia eken harek be ta. Ha geuk hartutako zer bat zuan. Ta geur be halan segitzen jok Marruekoek Españana. Baiña harek gu handik bialtzia nahi jua ta horrek beste geuza bat, han be gehitu ahal bazan, bestieri han be terrenuak ostu. Orduan jente ignorantia ta zera jeuan ba, ez oingo moduan, ta ahal bazan ostu bakarrik eitten genduan hamendik espāñolak eta honek. Ta gero harek gerria ta... Mordua hil jittuen, mordua, hamengua. Gu salbau giñuan holaxen ta akabo.

18. Donostia inguruko sagardotegiak

- **Erref:** AB-164/007
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:13:40. **Bukatu:** 00:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Donostian soldadutzan zegoela ezagutu zituen sagardotegiak, bai Donostian bertan, baita Astigarragan ere. Sagardoa nola egiten zuten.</p>

Transkripzioa

- Orduan hogeitun urtekin jua ziñan zu?

- Bai, hogeitun urtekin. Bederatzi hillabete ein najittuan.

- Donostian?

- Donostian. Beraneatzen. Beraneua! Primeran ein genduan. Jesus! Orduan sardandexa-ta baeuan han, Parte Zaharrian, kantidadia. Ta sidrerixarik sidrerixara jua ta sagardua nahikua eran ta... geuk, hamengo euskaldunok, erregiak moduan ibili giñuazen.

- Zelakua zan orduan girua han, sardandegixetan-eta, Donostian? Giro politta egongo zan.

- Ona. Oin ez dao lehengo moduan han sardandirik. Bat edo bi ta egongo dittuk, ezta? Baiña... Ta ostiango, sardandexa ez dan lekuetan be, sardaua ekarrittakua ta... oin be bai han bastante... beheko suterraneuetako sozidadietan ta geuzetan. Baiña orduan sardandexak euazen benetakuak, onak.

- Onak ziran?

- Bai, onak edo... Bai. Han guk behintzat [etxauan] aitzen, baiña... Sardandexak ikusi najittuan nik gero handik fuera, benetakuak, Astigarragara jua ta. Astigarragakuak be baeuazen ba geure kintakuak, eta nik hango batzuk lagun ein najittuazen. Ta koño, holaxen diskutiru sardaua zelan eitten dan ta... "Etorri bihar dozu geure sardandexa ikustera egun baten". Ta holaxen pentsau genduan egun baten ta jua nitzuan ta "ra!" urten jestan [...] ta "hauxe da ez dakit zer, hau da dolaria, hau dala ez dakit zer... Ta gero, sagarrak ekartzen douzenian hamentxe, hau dana..." montoi haundixak eruaten zittuen sagarrak ta gero zelan botatzen zittuen zerera halako... Esan jestan: "Hona bota, txikittu ta..." jo-ta beorrek zelan zertzen eban, ura zelan etaratzen [eban], aplastau ta "ran, ran, ran, ran". Ze esango deuat ba? Artua-ta molitzen dan moduan zerian, molinuetan, ba, igual-igual ha be. Jo-ta txikitzen jua ta gero pasau koladoretan ta gauzetan ta... "rrraaa!" dana barrika haundixetara. Ta gero han zelan urtetzen eban garbitzen euanian, bitsa ta zera gaiñezka ta... Erakutsi esten harek jo...! Ikusgarri! Ikusgarri! Sardaua zelan eitten zan ta ikasi najuan ofiziua, ikasi!

19. 'Basarri' bertsolaria Eibarren, Lucas Alberdiri egindako omenaldian

- **Erref:** AB-164/008
- **Iraupena:** 0:05:50. **Hasi:** 00:16:20. **Bukatu:** 00:22:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Bertsolari mordoa ezagutu zituen Astigarraga inguruan: 'Txirrita', 'Basarri'... 'Basarri' bertsolaria Eibarren. Lucas Alberdi artistari omenaldia egin zioten Eibarren, Txaltxanean, eta 'Basarri' ekarri zuten. 'Zozua'k berak botatako bertsoa; 'Basarri'ren erantzuna.</p>

Transkripzioa

- Sasoi horretan, gaiñera, bertsolari mordua egongo zan Astigarragan, ezta?

- Bai, 'Txirrita' ta, horren epokia [eken horrek]. 'Txirrita' ta... Harek gu baiño zahartxuauak zittuan, baiña.. Gero, bertsolarixak... bueno! Harrezkero be nere kinta ingurukuak eta... Oin zenbat urte ekazen honek 'Basarri' hil danak? Ni baiño gaztiaua zuan hori!

- Bai, gaztiaua.

- Ni baiño gaztiao zan hori. Horrekin be eukitta naok, 'Basarri'kin.

- Bai? Zelan izan zan?

- Ez, pasau zuan... Lukas Alberdi —hik ez jakixat entzungo heban—, artistia zuan hori, Lukas Alberdi, gure kuadrillakua zuan. Bai. Horrek premixua etara juan, lehenengo premixua. Konkurso bat artistena egon zuan Donostian, ta lehenengua etara juan. Ta gure kuadrillia Txaltxanera juaten giñuazen orduan. Han lokal bat jeuan, hau danau baiño haundixaoko zer bat, luziaua baiña... hantxe, "Peña Patxiko" jekan izena ipinita, Patxiko zuan ta... pixkat urtena zuan gureandik eta haren izena ipinita geuk, "Peña Patxiko". Ta hantxe egoten giñuan. Hori Lukas be bai ta danok; hau, Benigno Baskaran ta be... zera, aiuntamentuan ta... Haren alabia be alkaldesa egon zuan, Baskaran. Haren aitta ta horrek danok. Han egoten giñuazen. Ta horrek lehelena etara ebanian Donostian pentsau eben han kuadrillan zer bat ein bihar zitzakola, omenaje bat, merezi dabela hori premixuori etara dabenak eta. Bueno! Holaxen. Pentsau juen ta, bueno, pentsau juen eguna ta dana. Ta han zeren batzuk Zarautzen asko egoten zianak zittuan gurekin ta han grupuan gendezenak Txaltxanian ta horrekin berba ein juen, 'Basarrikin', halako egunetan ia etorriko litzateken, ez dakala ezebe gasturik. "Geuk eruango zaituu, bertan lo ingo dozu Eibarren, t ajan ta eran ein besterik ez dakazu zerian, geurekin, omenajian. Hor Lukas Alberdin omenaje bat dao ta haretxeaittik. Ta "A bai? Bueno, ba etorriko gara ba". Etorri zuan. Ta ein genduan. Ta nik be orduan epokan, epoka baten gitarria-ta be asko joten genduan Emete Kojua esaten etsaun batekin. Nik kantuak, euskerazko kantuak, auskalo ze kantatzen genduzen kitarriakin. Kitarria bastante ondo ikasi genduan. Plaentxiatarrenak eta holako berso zerok, Jesus, barbaridadia joten genduazen. Ta, holaxen. Esan najuan "Lukas Alberdin omenajia dok gaur ba..." Bersuak, berriz, kanta edo bersuen liburuak-eta najekazen nik bersolarixenak-eta, ta ein najuan nere modura. Zegaittik eze alkatia, Alkate Txikixa, Orbea, Orbeaneko Alkate txikixa —hik ez jakixat ezautzen heban. Hil zuan oindio ez dok denpora asko. Alkate Txikixa izan zana— ta Martiniano ta bi-hiru konzejal be bai etorri zittuazen azken orduan, harek kafietara etorri zittuazen. Ta hantxe momentuan, ba, nik neuk be borrador bate in ta bersua eruan najuan. Berso modoko bat. Oindio goguan jakat. Lehenguan alabiak eskatu jestan, galdu ein zitzakola ta mesedez ingo netsan, Lukas Alberdin alabiak. Eta baietz ba, ta holaxen. Hauxe zuan bersua bota netsana. Ezebez, e. Ezebez, baiña pixkat txokauta geratu zittuan, bera 'Basarri' be bai. Peña Patxikon degu lagun bat

Eibarren oso ezaguna
Donostiako zertamen hortan
aurrena atera diguna
omenaje bat merezi zuan
ta aillegatua da eguna
lagun guztiok berakin gaude
bai konzejal eta alkate jauna
artista hau da Lukas Alberdi
Eibar onratzen diguna.

Jo-ta sekulako obaziñua jo esten. Horixe botata, beste barik. 'Basarri' albuan jeuan, ba. 'Basarri' jaiki zuan laster ta bota juan berso bat edarra harek be: ia bertan halako bersolarixa euki ta Zarauztikan honaiño zetara ekarri naben ni. Horixe esan gura eban bersuak dana. Horixe bersuori bota juan. Ia zela ekarri daben bera, halako bersolarixa bertan eukitta. Ta "Ni ez nok bersolarixa, nik asmau jittuat, ba, bersuetara ta kantura afiziñua ta, ba, gauza asko jakixaraz, ba, bersolari onenak be bai, 'Txirrita'nak eta honen... 'Pello Errota'nak eta horren bersuak... Jesus! Zenbat ikasi genduzen guk...! Bueno...!

20. Donostia inguruan ezagututako bertsolariak

- **Erref:** AB-164/009
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:22:10. **Bukatu:** 00:25:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Txirritaren anekdotak Donostian; Peio Errotarekin gertatutakoa. Txirrita ez zuen ezagutu, baina Donostian beste bertsolari batzuk bai.

21. Bertsozalea; bertsotan lagun artean

- **Erref:** AB-164/010
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:29:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Beti gustatu izan zaio bertsolaritza. Lagun guztiak bertsolari edo kantariak. Elgoibarko jaietan gertatutako anekdota. 'Emete kojua' eta 'Zozua'ren arteko bertsoak.</p>

Transkripzioa

- Donostian ibili ziñanian, 'Txirrita' ikusten zenduan han sardandegixetan-eta?
- Ez, ez, neuk ez najuan ikusten.
- Eta beste bertsolariren bat bai?
- E?
- Beste bertsolariren bat?

- Bai, bai, bersolarixak-eta han takian-takian be [bazeren]. Bersolarixak... Baiña neuk ez najuan han figuratzen bersuetan. Kitarria jo ta kantau eitten bai.

- Baina zuri gustau izan jatzu, ez? Bertsuak-eta gustau izan jatzuz, ezta?

- Bai, enee... Ointxe be hantxe jakaraz nik 'Uztapide', 'Basarri', Lasarte... ez jakixat zenbaten liburuak etxian. Hantxe jakaraz danak, holakotxe liburuak, ilaran, berso mordua dittuenak. Bai. Horrek be hantxe egongo dittuk seguramente. Baiña, bo... bersuetia ta kantua asko gustatzen jatak. Gero, alkarri bota be bai, e! Enee! Baten, goguan jakat, Elgoibarko jaixak zittuan, San Bartolomiak. Gure kuadrillia jua giñuan ta kuadrillia kantoriak giñuazen, e! Holan, orfeoiko kantuak be 'Goizeko izar' edo, ta 'Ilunabarra' ta... Horrek kantu mordua dotore kantatzen genduazen kuadrilliak. Ta Elgoibarko San Bartolomietan jua giñuazen ta danok txikiteuan pixkat ikututa, kanturako amorratzen, ta kantau eitten genduan, danok kantau. Han Elgoibarren euan, Azkoittirako salidan, basarri bat, urten ta segiduan goittik behera sartu ta basarri zabal haundi bat zuan, zeñena zan be... bueno, aitzuta dakat izena-ta be. Dana beteta jeuan haura! Emoten juen, zera emoten juen, tortillak eta geuza rapiduak [...]. Beteta jeuan basarritarrez, meriendatzen. Jua giñuan geu be, ba, ederto, dotore, ta geu be tortilla bana edo zeoze jatera. Bageuazen hantxe ta... 'Emete Kojua' esaten jetsen nerekin lagun eitten ebana kantuan-ta asko. "Hi, haxe bota bihar deuat —esan jestan—, ta hik gaiñerakua botaidak". "Zozua..." Gure familixiari 'Zozua' esaten jetsen ba, 'Zozua'. Ta neri orduan 'Zozua' botatzen jestan. Ta "Nik botako deuat hiri ta hik botaidak gero bestiori, hau gustauko jakuek eta!". Ta harek bota jestan neri:

Zozua dago hamen
 kantuari poztuta
 esan leike daguala
 hortatik aberastuta
 lehengorik ez daki eta
 oinguak ahaztuta
 laster utzi bihar det
 heguak moztuta.

Jo!... 'Zozua' nitzan... ta "heguak moztuta". Ta nik zelan nekixan horren kontestaziñua... "Ixi! Ixi! Ixi! —basarritar danak— Ixi! Ixi!". Harek geuk asmatzen genduzela edo ez dakit ba ze pentsatzen eben. Nik bota najetsan horren kontestaziñua:

Kantuan hasi zaitez
 umil eta prestu
 hasi orduko biok
 ez gaitezen nahastu
 lehenik ez dakitela
 ta ez gehiegi poztu
 bertatik nahi zenduke
 neri heguak moztu
 Emetek hortarako
 bigoterik ez du.

Jo-ta... Jesus! Jo-ta danak... haura zuan txalokia! Segi! Gero be bota genduazen halakotxe geuk ikasitta gekauzen bersuak. Gaztetan halaxe

ibiltzen giñuazen gu! Harek kantau ta gitarrak... Gero plaentxiatarren kantuak eta... Nik gitarria bastante ondo manejatzen najuan.

22. Gitarra jotzen lagun artean

- **Erref:** AB-164/011
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:29:50. **Bukatu:** 00:32:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Gitarra jotzen ikasten. Berak, "Emete"k eta Bolunburuk ikasi zuten, azkenaren anai batekin. Pedrok sarri jotzen zuen, lagun-arte, jaietan, afarietan... Soldadutzan zegoela ere bai.

23. Aratusteetan kaldereroekin kantuan

- **Erref:** AB-164/012
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:32:20. **Bukatu:** 00:34:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Aratusteetan kaldereroekin irten ziren behin baino gehiagotan, gitarra jotzen. Kaldereroen kanta abesten du. "Orquesta Bretøn".</p>

Transkripzioa

- Gu hamen sasoi baten zera be bai... zelan da... kauen diez...
- Orkestaren bat edo?
- Bai, ba, orkestia urten genduan, zera, honek... zelan esaten jakuek? Dios! Ezin jatak akordau! Bueno, zerak arreglatzen dittuenak, ontzixak eta gauzak...
- Kaldereruak?
- "Caldereros". Hori. Kaldereruen izena jekan harek, "caldereros". Hantxe urten najuan nik bi edo hiru bidar, orkestan, kalera. Hauraxe ensaiatzen genduan hamentxe, bar baten, zer baten, ta orkestiak jotzen jua ta geuk gitarreaz [aurraz] ensaiatu ta gitarrista. Izango giñuan hamar bat edo gehixau igual gitarristak orkestan. Ta han be ibili giñuazen.
- Hori ze izaten zan Aratustietan?
- Bai, bai, Aratustietan. "Los Caldereros". "Caldereros de la Hungria".
- Kantua be bazekan horrek, ezta?
- Bai, ba, karo, karo...

"Caldereros somos de la Hungria
que venimos en tren especial,
a pasar en vuestra compa  a
los tres d  as de este carnaval.
A pasar y a divertiros
en esta noche sin igual.
  Ay! Cu  ntas noches vamos a pasar!..."

Gero, zerei, emakumieri deitzen:

“Componemos bien y pronto,
caldereros, chocolateras...”

Gero, “kobrau ez dou eitten, geiñera! Duan...”. Bueno, aitzu jataz oin kanziñuak eta horrek, baiña... duan zelan konpontzen douzen ta hortaraxe zuan hori kaldereruon kantziñuok. Orkesta politta ta kantoriak be bai, grupo ona jeuan. Ta jolin! jentiari gustau jakuan haura orduan.

- “Orquesta Bretón” edo be bazeuan, ez?

- A! Baitta! Bai. Ha orkestia zuan bakarrikan. “Bretón”. Bai, orduantxe epokan bazeuan. Ta horretako musikuak-eta, orduan, jesus! Musikuak be onak jeuazen! En fin, holaxen ointxe arte.

24. Baskulagintzan non ikasi zuen; ondo marrazten jakitearen garrantzia

- **Erref:** AB-164/013
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:34:40. **Bukatu:** 00:39:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Baskulagintza; ogibidea nola ikasi zuen. Zeleta eta Albisteginean hasi zen ikasten. Aprendizaren lana zein izaten zen. Artea duenak erraz ikasten du. Marrazten jakitea oso garrantzitsua; dibujo eskolan Zulaika eta Artamendirekin asko ikasi zuen. Lucas Alberdik ere bertan ikasi zuen.

25. Bere izena (Pedro Arrizabalaga) daraman tailerra noiz eta nola ireki zuen

- **Erref:** AB-164/023
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:55:40. **Bukatu:** 00:57:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

<p>Ugartetxea hil zenean "Zozua" bere kabuz hasi zen lanean; tailerra jarri zuen gerra ostean, Pedro Arrizabalaga izenarekin. Poliki-poliki hasi ziren, beste batzuekako lanak egiten; denbora gutxira lan gehiegi.</p>

26. Eskopeta asko kanpora saldu izan dituzte

- **Erref:** AB-164/025
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:59:45. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Eskopeta asko saldu dituzte. Behin kanpotar batzuekin gertatutakoa.

27. Eskopeta fina egin izan dute beti; erosle garrantzitsuak

- **Erref:** AB-164/026
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:02:30. **Bukatu:** 01:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Beti eskopeta fina saldu izan dute. Jende ospetsuarentzat egindako lanak. Lan asko egin eta sekula kobratzen ikasi ez.

28. Aitak erregalatutako eskopetarekin hasi zen ehizan

- **Erref:** AB-164/028
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:04:45. **Bukatu:** 01:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

<p>Ehiza kontuak. Umetan hasi zen, aitak erregalatutako eskopetarekin. Hasieran denetik hiltzen zuten ("keixapean"); gerora ikasi zuen txoriak errespetatzen.</p>

Transkripzioa

- Zu kazan ze hasi ziñan, oso gaztia ziñala?
- Umia nitzala.
- Bai?
- Bai. Neri aittak, ez jakixat ba nik, dozena bat urterako eingo jestan behintzat eskopetia, hau hamabi milimetrokuau, txikixa, bere denporan. Ta orduan ezebe-ezebe ez [zuan] kontrolik kazarako. Ni Mendaron egoten nitzuan basarrixan, nere aman etxera juanda hara. Eruan eskopetia... keixapia... Geuzarik grabiena horixe da, keixian dauan umiekin-ta zozuak darella ta zozokumak be igual ta "Tapa! Tapa! Tapa!". Ze eitten nebanik be ez! Hil ta sei edo zortzi-hamar hil ta tiari: "Aiba! Ipiñi horrek!". Lumatu ta ipintzen jittuan harek! Ta harek be "como si no", holaxen dalakuan. Dakan inportanziakin, keixapian, umiekin ta arrautzekin txorixak eta! Orduan ezebe ez euan. Halaxe ekin najetsan. Gero... gero ez. Gero "¡A respetar todas las cosas!", beste edozeiñen moduan.
- Orduan Eibarren jente asko izango zan kazarixa, ezta?
- Asko, bai. Asko, bai. [...] Oin kazarixa izateko pixkat responsablia izan bihar dok eta gastua be ein ein bihar dok, zegaittik eze eskopetak be karuak dauaz. Eskopetak karuak, eta gero muniziñua be ez dao merkia. Ta gero hamen ez dok eingo kazerixa haundirik, baiña Burgosera edo... jolin! Juan ta gastua. Beti gastua eitten!

29. Ehizan nondik-nora ibili izan den

- **Erref:** AB-164/029
- **Iraupena:** 0:07:00. **Hasi:** 01:06:35. **Bukatu:** 01:13:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

<p>Ehizan non ibili izan den: Kalamua, Elgeta, Oiz... Oizen oilagorretan.</p>

Transkripzioa

- Zuek gaztetan Eibarren nun ibiltzen ziñazien kazan?
- Hamen Eguarbitzatik, Elgetatik ixa Anboto barreneraiñok, horrek danok ta gero Kalamua aldera ta hau, zerok be... "lo mismo", beste... Oizera be bai. Oizen hilda nagok ni... Hasieria dok, e! Dominu santuak edo esaten dok, "el treinta de Octubre" edo "treinta y uno" edo. Pasia euan, "pase de palomas", ta Trabakuan-ta mordua kazarixak pasian. Ta ni erbittalarixekin jua nitzuan basarri batera lo eittera, hara, Oizko mendira. Ta txakurrakin ni oillagorretara, oillagorretara edo... "lo que sea!" Bai ba, haxe... Kustiñua dok eze, egun hartan, Dominu Santuetan, bost oillagor hil najittuan nik, egun baten. Goiza, pasia egon zuan, ta oillagorrek topau nittuan baitta... Piñadi bat hor ta beste bat hamen ta hamen [bixen bittartian] garo-sailla. "Trin, trin, trin, trin, trin..." Hor garotzan, ta ni hamen bidian behetikan, ta txakurra hor zihar garotzan ta "krak!" ixilduta garotzan. Akabo! "Zer daok hor? Zer daok?" Ta berbetan txakurrari ta... "Bat! Zer? Zer daok?" eta zertzen najuan pixkat, [aztoratzen] najuan. Ta garotzan, "pro, pro, pro, pro, pro!"... "Danba!" ta behera, oillagorra. Garotzan, e? Holakotxe zera... Gabian etorri barrixak... Pasia ta pasia, ta behian, hamen herri bat dagok behian, Munittibar edo, ha aldian. Honek AYA, Agirre-Aranzabaleko horrek kazarixok ta bertan Trabaku ondoko basarri bateko bat, alkarrekin, oillagorretan begira han. Ez ei juen topatzen ta "Ta! Ta!" nere tiruak han goi-goixan. Sei! "Ta! Ta!" Oillagor bateri ein najetsazen sei tiro! Ez, bi, lau... bosgarrenian hil, bosgarrena. Baiña oillagor bat... Txakurra espabillaua zuan, txakurra arrastuan hamen [dabillen]... "Pra, pra, pra!" jaikitzen zuan. Aiba Dios! Hantxe gora doiala "Ta! Ta!" eitten [netsen] ta aurrera! Barriro beste leku baten be bai [...] ta "hor joiak jaikitta barriro be!" ta tiro txarrak e [...] "a la deriva". Bestiak ez, bestiak tiruak tiro ein najittuazen. Holaxen, bi tiro biko ein [netsezenian], etorri jatan hori Trabaku ondoko basarrikuori: "Zeri diharduzu?" ta "Zeri diharduten? Oillagorrari! Oin be bi tiro biko einda hamen daok ta honek hilddakuak", bi edo hildda najekazen. "Mekauen! Hor, sinistu ezinda gare han ." Behian ebillen AYAKo ugezabakin, [...], AYAKuekin ta "Oillagor bat ez dao hor behian!" Ez ba, harek zittuan gabian [...] eindako oillagorrek.
- Orduan heldu, ta ondiokan ezkutau barik...
- Bai ba! Ta esan najetsan: "Bueno, bi tiro [...] ein ta horraxe direziñua ein dau ta guazen!". Juan giñuazen ta... "raa!" ta han ikusten juat nere txakurra "da!" parauta, kieta. Kanpora begira euan, piñudixan amaieran zuan, gero kanpora libria euan. Baiña haraxe begira euan ta kanpora urten bihar jua ta, bueno. "Ikusten dozu ala?", "Bai!", "Joño! Juan ba!". Juan nitzuan ta bera begira neri atzetikan ta "bra, bra, bra!" urten jua zuzen-zuzen. "Dale!" ta bota najuan. "Joño! Ikusi ez baneu ez neban sinistuko!", esan estan. Kustiñua dok, handik beste... Apartau zuan ha, goittik behera edo hara gora edo... nunbaittera ta ze ein najuan? ta ni sartu ezindako moduko piñudi bat euan, zerratua ta sasixa ta geuza asko ekazena. Ta

goittikan bidia ekan, gaiñetikan librian. Ni handik eta txakurra han jebixan sartuta “drn, drnn” ta “trin, trin, trin, trin, trin...” azkenian nere ondoraiñok etorri zuan txakurra. “Nun hao?” Ta geldi! Ta, “zetan hao?” ta berba eitten najetsan nik, holaxen, harrikada batera. “Kauen diez! Oillagorrrakin daok, ba!” ta “la! la Bat!” ta haizau najuan pixkat eta “pra, pra, pra, pra, pra!” sentidu najuan hego-hotsori, nere buru gaiñetik zihar “rrraaa!” [Hor...] “danba!” ta “brrrrrrr...”. Euan erreka-zulo billurgarri bat, holan goittik “brnnnnn...” mendi falda bixen zulua, haundixa ta pago zahar haundixa jo-ta... haraxe behia jota! Ha urtietan-edo egongo zuan igual! Baiña pago demasa ta dana, erreka-zulo guztia, oillagorra jausi zan lekua, dana jo-ta tapauta berak! “Eneee! Hor ezin neike nik sartu behintzat bila be! Pentsau bez!”. Ta “Txakurra!” esaten detsat: “Hortxe, bai, hortxe”. Ta adar gaiñetatik eta “di-da! di-da!” juaten zuan, paguan adar gaiñetatik ta... Sentiru ez jok ba ein usaiña? Igarri najetsan, “Sentiru dok ba, e?” “Trak, trak, trak...” Beste arbola batera bajatu ta “tak!” handik beste batera ta, zulua, gero ta beherau ta... Sartu zuan sakoneraiñok eta... hor urtetzen jok oillagorrrakin! Ha zuan meritua! Nik hari emon netsan meritua! Etorri jatan ta... “Kauen diez! Hau...!” Bai. Halaxen, bost oillagorreaz bazkaldu. Ta banaok eta hau, famosua zuan kazan, izena ezin jatak akordau... Ha ohittuta euan hara basarrira juaten kazara, berak urtetzen ebanian. Ezaunak [jittuan] ta “ra!” etorri zuan guk bazkaldu ta gero. Sukaldian han euazen esegitta oillagorrok ta, “Ta Zozua, oillagorrak nun dauaz ba?” ta “Oillagorrak nun daren? Begiratik hara gora!” ta “Ene ba! Heuk hil dittuk horrek?” ta “Ez, heuk!”. Halaxen etara genduan... [...]

30. Oilagorretan egitea ehizarik gogorrena

- **Erref:** AB-164/030
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:13:35. **Bukatu:** 01:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

<p>Ehizarik txarrena eta gogorrena, oilagorretan ibiltzea; gogorra eta txakur ona behar.</p>

Transkripzioa

- Kazarik zaillena oillagorretan ibiltzia izango da, ezta?
- Bai, bai. Ibili asko ein bihar dok ta txakurra bihar dok, txakurra bihar dok ona. Txakurra? Txakurrak euki jittuat nik... Hiltzen dabenak erakutsi be ein eitten jetsak, hiltzen dabenak, ta nik hil be eitten najetsezen “taka, taka, taka...” bai batari ta bai bestiari, hiru edo lau txakur euki jittuat eta. Ta jode! Holaxen, txokauta geratu zuan ta... Hamen fabrikante bat zuan, geure etxian onduan taillarra ekan. Kauen... Ezin jatak akordau... Bueno, dana dala. Ha paselekuan euan, nik esan dotenori, kazarixa zuan bera, oillagorretalarixa gaiñera, baiña pasian euan Trabakuan. Ta hori esan dotenori, gurekin egon zanori, juan jakuan hari ta: “Fulano” ta “Zer?” ta “Gaur be oillagorrak ikusi douz ba txortia” ta “ze oillagorrak?”, “Bai, Zozuak hil dittu. Bost!”, “E? Bost? Ez juat sinisten!”, “Ez dozula sinisten? Laster etorriko dia hamen zihar, hamendik pasau bihar dabe”, hortxe gaiñeko bidetik pasau bihar genduan ta. Efitibamente, bagenden ta horrek deittu eiñ jestan: “Zozua!”, “Zer?”, “Etorri hari hona!”, deittu jestan. Ta juan nitzuan ta... “Aber, hamen daok sinisten ez dabena ta erakutsixuaz

horri!”, “Aiba!”. Erakutsi najetsezen ta “Ene demoniuk!”, sinistu ezinda geratu zuan ha, “Bost oillagor gaur? Hamen usuak pasatzen ta!?”, “Bai baiña, hor, hortxe! Hantxe geratutakuak goixan!”, “Mekauen diez!”. Holaxen.

- Oillagortalarixan artian famia daka behintzat e, gezurrak eta be... ezta?

- Bai, bai. Oillagorretan txakurra bihar dok. Txakurra! Txakurra ona! Gero, tiratu be... jakin ein bihar dok e! Hutsak eitten badittuk akabo! Zenbaittek topatzen jittuk ta gero hil ezinda ibiltzen dittuk! Baiña... itxuran urtetzen daben oillagorra behintzat, ezta? Txakurra parau ta “bra!” bertara urtetzen dabena... Bai; esango deuat kaso bat...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com